

# ATZEALDEA

Entzun sintonian  
aurrerantz makurtua  
itxaron  
eta jaiki  
irten edo joan  
portu zaharrak  
izurdeenak  
ingeniari eta gerenteenak  
arduraz jokatu  
eta jaiki  
irten edo joan  
ukitu bat  
tiraldi bat gero  
barrurantz makurtua  
bultza gero bultzada bat  
eta jaiki  
irten edo joan  
hari amore eman  
berriro atzeman  
amaigabeko jazarpena  
jira eta bira  
eta jaiki  
irten edo joan  
eta segi eta segi eta segi  
haiek intziri dagite  
orduan jaiki  
irten edo joan

Orduan, iluntasun hau aurrekoak baino ilunagoa da. Iluntasun hau zure begi-ninien eta hemengo letra hauen belztasunaren arteko korrespondentzia da. Zure begiak hemen pausatzea ez da kasualitate hutsa, aitzitik, bilbe ikusezin batek iluntasun honetarantz tenkatzen du zure arreta. Zatoz eta hurbil zakizkie letra hanpatu horiei. Bai, zatoz eta hurbildu! Harrigarria da zientziaren eta ikusezintasunaren arteko erlazioa historian, fantasiaz haragokoa denean, mamuz, konjurazioz eta ilusioz beteriko istorioez haragokoa; baina ikusezinaz ari garela, kontuan izan behar dugu zientifikotasuna eta magikotasuna bereizten dituen lerro hori zehaztugabea bihurtzen dela modu aski bitxian sarritan. Ostertza begiradaren araberakoa da, eta beti bezain urrun dago beti. Erabateko zentzugabekeria da; tokitik mugitu gabe korrika aritzea bezala. Batzuetan, lurrari begira egiten dut korrika, asfaltoan marraztuta dauden marrei begira, eta gehiago nekatzen naiz orduan, oin bat beti bestearen aurrean jarri behararen erantzukizunak abailduta.

Isuri horizontalki lerro bat zure gorputzarekiko paralelo.  
Isuri horizontalki gorputza leitzeko.  
Lelo horizontala gorputza lerrotzeko.  
Horizontalki isuri gorputz bati.  
Ishuro talkiro gorpa lelo bat.  
Halakok gezurra dio bere burua horizontalki isurtzeko.  
Erroba tzareki arale zu,  
Urizon atzura topare.  
Hori, goru, ero, aro,  
Irri, harro, zero, su.

Hartzen dut zure azentua uzten banauzu eta neure burua azentuatzen düt hitzezko kopula batekin zeharkatzen nauzu neurrigabeko sexu batekin zure azentua nire mingainean, nire listuan zauzkat, nire aho-sabaian, konta egidazu zure irudia, eta zintzurrean behera irentsiko dut, nire ahots-kordetan zehar, eta gailurrean jarriko dudala zin egiten dizut! Esan nahi didazuna esatekotan egon zara une batez, baina nire ahoan eta zu ohartu gabe neu izango naiz hori esaten. Nirekin eraman nahi zaitut, zatoz nire artxiboan, nire artxiboan nahi zaitut, bidali iezadazu zure ahotsa WeTransfer bidez.

Silueta bat iluntasunean kokatua,  
edozein kantoitan, edozein hiritan,  
bere bazter amaigabeen kontakizun bat,  
beste ahots baten memoria den hitz-jarioa,  
silueta barne-huts bat, gorputz batetik hustua,  
zulo dirudien argi-contrastea,  
eta begiak barrurantz jausiak,  
barne-hustasun beteari begira,  
beltzean barneratuz begirada.

Murru txiki batek eta bere bi eskailera-mailek ur-jauzi efektua egiten dute. Ur-jauzi efektua egiten dute bi eskailera-mailek eta murru txiki batek. Ur-jauzi eskailera-mailek murru efektua eta bi. Eskailera-mailek murru efektua egiten dute eta batek ur-jauzi txiki bi. Bi murru dute egiten eskailera-mailek eta ur-jauzi txiki efektu batek. Txiki batek eta bi eskailera-mailek ur-jauzi efektua dute murru egiten. Batzuetan, gertaerak modu zirkularrean azaltzen zaizkigu, lehenago bizitako, ikusitako zerbaiten ikusle bihurtzen zarenean bezala. 2012. urtean, hor nengoen ni, ke makina baten aurrean, zutik eta begiak itxita, eta hantxe gelditu nintzen ere tokia desagertu zen arte. Batzuetan, gertaeren zirkulartasuna agerian jartzen da aintzat har dezazun.

Weke weke weke, berriro etorri bide da, indartsu eta ausart oraingoan.  
Ez agian pozez dardarka baina bai deiadarka.  
Etorri da da da, esku-hutsik, baina etorri da.  
Irten da oihua,  
irten da irten  
egin oihi egin  
eta gorputza lotzen da eta urratzen eta toniko bihurtzen eta dibertitzen  
Hau zoria, dibertitzen!

Gauzak eta pertsonak laino-geruza batez estalita, mantu batez estaliko bagenitu bezala. Galderak sortzen dira desagerepenaren elkarrekotasunaz. Litekeena litzateke dentsitate horretan gauzak gertatzen egotea. Baina ez. Egia esan, ez da ezer gertatzen ari. Lainoak nire zalantzak uxatzen ditu, une batzuk. Desagertzen naiz arnasa hartzen duenak bezala, oinez noa, eta, behin berriro, naturaltasun artifiziala. Argibideak, saiakera bateko elkarrizketa, film bateko elkarrizketa. Eta beste eszena bat hotsez eta argiz lagundua. Gu kezkatzeko jolasak, gu urduritzeko pilulatxo zitalak; *sniper* bat eta hotsak eta argiak ondotik. Balak animaliak autoak erne sakabanaketa bakardadea. Nik gozatzen segitzen dut, norbait ipuin bat kontatzen ariko balitzait bezala, doinuaz, kadentziaz, egiten eta esaten duen guztian jartzen duen arretaz laztantzen. Gozamina ez da eragozpen esaten ari zaiguna entzuteko. Bada atsegintasunik ere kontatzen duen horretan. Zer dago lañotasun horretan, bai, zerbait natural hurbila eta pertsonala dago kontatzen den horretan, harrapatu egiten nauena. Deitzen dio, pagoaren eta artearen adarra bihurrikatu egiten da. Uneren batean, elkar ukitu zuten, gero hozka egin zioten elkarri, adarkadurek, gero bat egin zuten, hor. Dena bat, bere ahutzak, bere erpeak, bere listu likatsua, urtsua bere oxigenoa, karbonikoa bere anhidridoa. Atzema eta inurri profosil bihurtua mutua gorra itsua larba betiko geratu han geratu ureztatu. Agur agur Proklama agur.

**13. Proklamaren** kartelaren atzealdea, 2018tik aurrera KAPIK proiekturako idatzitako materialekin moldatua, honako egile hauen 326 karaktere oinarri hartuta: **Ainara LeGardon, Alina Ruiz Folini, Camila Téllez, Ghislaine Verano, Ibon Salvador, Ines Aubert, Isaak Erdoiza, Ixiar Rozas, Karlos Martínez B., Miriam Inza, Nazario Díaz eta Rebecca Collins.**